

Familia agurgarriak,

2020-2021 ikasturte berezi honi hasera emateko unea iritsi zaigu. Jakitun gara, Elizatxo ikastola osatzen dugun guztiok kezka eta arduraz bizi ditugula egun hauek, bereziki ikasleak eskolaratzeari dagokionez.

Hezkuntza sailak, momentuz, aurrez aurreko eskolaratzea egitea erabaki du. Momentuko egoera honek, eskolan ohikoak ez diren hainbat neurri hartzera eta betetzera behartu gaitu. Horretarako, eta eskolan hastea ahalik eta ziurrena izan dadin, ikastetxeko Kontingentzia Plana osatu dugu (atxikiturik dokumentua). Elizatxo ikastola osatzen dugun kide guztion onurarako eta denon arteko elkarlanari eusteko, Kontingentzia planean jartzen duena bete beharko dugu.

Berau azaltzeko guraso bilerak antolatu ditugu hurrengo asterako, beraz, mesedez, erne egon zaitezte, tutoreek bidaliko dizuten mezua laster jasoko duzue eta.

Ez ohiko egoera honetan pazientziaz, lasaitasunez eta konfiantzaz etortzeko eskatzen dizuegu, denon artean ikasturtea ziurtasunez hasi dezagun.

Laster arte,

Zuzendaritza Taldea.